



Cultura | Libros

Nojud Ali, 10 urterekin ezkondu zuten eta dibortziatu zen yemendarra



Carmen Gisasola eta Inazio Mujika Iraola editorea, liburuaren aurkezpenean.

Orain dela hamarkada bat sekulako arrakasta lortu zuen liburua argitaratu du euskaraz Ereinek, Carmen Gisasolak itzulia

Jueves, 11 octubre 2018, 19:11



Nojud Ali Yemenen jaio zen 1998an. **2008an, hamar urte zituela, eskola uztera eta 30 urteko gizonezko batekin ezkontzera** behartu zuten. Berak ume izaten jarraitu nahi zuen, baina Nojuden sorterrian ohikoak diren

ezkontza goiztiar eta behartuek ez dituzte aintzat hartzen neskatoen desioak, familien interes eta konpromisoak baizik.

Bi urte zeramatzan ezkontuta, ia egunero kolpatua eta ia gauero bortxatua, senarraren familiaren etxetik ihes egin eta epaitegi batean azaldu zen, **dibortzio eske**. Lortu zuen dibortzioa Shada Nasser abokatuaren laguntzarekin. Aitaren etxera itzuli zen, eta ikasketei heldu zien berriro.

Nazioarteko hedabideek laster eman zuten Nojuden lortutakoaren berri, eta **2008ko azaroan munduko dibortziaturik gazteenak Urteko Emakumeen saria jaso zuen New Yorken**, 'Glamour' aldizkariak emana. Nicole Kidman, Condoleezza Rice eta Hillary Clintonekin partekatu zuen ospea. 2009an, Delphine Minoui kazetariaren laguntzaz, **'Moi Nojoud, 10 ans, divorcée'** liburuan jaso zituen bere eta bere herrialdeko neska askoren bizipen gogorrak.

Liburuak sekulako arrakasta izan zuen, hogeitabat hizkuntzatarara itzuli da, eta film ere bilakatu da. Euskarara oraintxe etorri da, Erein etxearen eskutik, **Carmen Gisasolak itzulia**. **'Nojud naiz, 10 urte eta dibortziatua'** Oroimenean barrena sailean argitaratu dute, 176 orrialde ditu eta 17 euroko salneurria.

<<Marokoar jatorriko neska frantses batek, Langraitzeko espetxean nengoela, oparitu zidan liburu hau. Udak Marokon igarotzen zituen familiaren etxean, baina mendebaldeko kulturaren edo baloreetan txertatuko neska zen. Emakumeen gaia sakonago jorratu eta frantsesa

lantze aldera, itzuli egingo nuela erabaki nuen», gogoratu du Gisasolak Donostian egindako aurkezpeneko prestatutako testuan.

Laikotasunaren defentsa ere egin du bere testuan Gisasolak, Nojud eta beste hainbaten patua erlijioarekin lotuta: «Erljioek balore atzerakoi batzuk inposatzeko indarra izan dute presio sozialaren bidez. Hemen ere, Elizarekin gauza bera gertatu izan da mendeetan zehar. Beraz, ezkontza goiztiarrak eta ezkontza barruko indarkeria ez dira islamaren patrimonio huts. Mendebaldean, asko kostata, askatasun eremuak bereganatuz goaz emakumeok nahiz eta parekotasunera oraindik iritsi ez. Beraz, aurrera begira, ezin ditugu balore atzerakoiak onargarritzat jo emakumearen kalterako direnean».

Nojuden ausardiak balio izan zuen gauzak aldatzen hasteko. Yemenen, ezkontza goiztiarrak dira neskatoek hezkuntzarik ez izateko arrazoi nagusia. Emakumeen %70 analfabetoa da. Nojuden tabu batekin haustea lortu zuen, ohitura ultratradizionala hankaz gora jarrita. Nojuden dibortzioaren ondoren, **beste bi neskato gauza bera egiten ausartu ziren** Saudi Arabian eta Yemenen; 9 urtekoa zen bata eta 12koa bestea«, gogoratu du Gisasolak. Gainera, «Nojuden dibortzioaren ondoren, 2009an, Yemengo legebiltzarrak ezkontza legea 17 urtetan jarri zuen bai neska et bai mutilentzat. Eta ezkontza hitzarmena epaileak izenpetu behar du».

Nojuden bizitza, ordea, **ez da berak espero zuen neurrian aldatu**. Ikasi egin nahi zuen, abokatu bilakatu, eta horretarako zen hasiera batean

liburuari eta unean uneko famari esker lortutako dirua. Tamalez, Nojuden arazoak ez ziren amaitu. 2013an jakin zen aitak lapurtu ziola dirua (eta beste alaba gazteago baten ezkontza hitzartu zuena, 750 dolarren truke); 2014an berriro ezkondu zen, eta ama izan zen; 2016an AEBetara joan zen tuberkulosia sendatzera, eta Yemenera itzuli zen tratamendua amaitutakoan. Harrezkeroztik zaila da hogeituro urteko emakume gazte bilakatuta dagoen Nojud Aliren berri izatea. Yemendar gehienak bezala, gerraren ondorioak pairatzen ariko da seguru aski, hamar urte zituenean bezain pobre.

TEMAS [Euskera](#)



La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario
Vasco

Libros

[Top](#)

[50](#)

'El Nix', la gran novela americana de 2018

1

2 Soledad Becerril, la pionera que batalló por no ser la única


3 La educación feminista de los hombres también pasa por la literatura

4 El Planeta tendrá un 'hermano' en Italia


5 Lo que enseña la montaña

Patrocinada


Noticias relacionadas



**«Marimetraka izatea generoz
gaindiko jarrera da»**



**Amaitu da 'Agur Etxebeste!'
filmaren grabaketa**



**Musika eskaintza anitza
Plateruenako eszenatokian**

**CONTENIDO
PATROCINADO**

Fotos





📷 Moda en imágenes



📷 Las bondades del veneno natural



📷 Mazinger Z resucita en San Sebastián



📷 La nación Zulu venera a su rey

Vídeos



▶ **Sánchez y Torra acuden al funeral de Montserrat Caballé en Barcelona**



▶ **Agotadas en una hora las entradas para ver a Muse en Bilbao**



▶ **La 9ª temporada de The Walking Dead arranca con nuevo líder**



▶ El Liceo de Barcelona
prepara un homenaje a
Montserrat Caballé

EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018



vocento ✓

Contactar | Aviso legal | Política de privacidad | Publicidad | Mapa
web | Política de cookies